



ALKARBIDE



# UME ELEBIDUNEN GURASOENTZAKO ESKILIBURUA



## GUIA PRACTICA PARA PADRES Y MADRES DE NIÑOS Y NIÑAS BILINGUES


**F1.** *Elebitasunak (hirueletasunak) eragina ste dauka ikas-errendimenduan?* Umeek hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ez dio kalterik egiten eskola-errendimenduari. Aitizitik, hainbat hizkuntza jakiteak abantaila edo onura batzuk ekarriko dizkio umeari etorkizunean, esate baterako, bi (hiru, lau...) hizkuntzatan komunikatu ahal izatea, lan aukera hobeak izatea, bi (hiru, lau...) kultura ezagutzea... Gainera, herrialde batzuetan egindako ikerlan pedagogikoez diotenez, bi hizkuntza egoki garatzen eta hizkuntza horietan ikasteko gai diren neska-mutilek ikasle elebarrak baino eskola-errendimendu handiagoa izan ohi dute.

**F2.** *Gure seme-alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?* Euskara hutsean eskolatutako umeek oso erraz ikasten dute gaztelania etorkizunean. Batetik, hizkuntza batean ikasten diren edukiak bigarren hizkuntzara aldatu daitezkeelako erraz bai erraz; nahikoa da bigarren hizkuntzan nola esaten den jakitea, ez dira ezaupide guztiak berriro ikasi behar. Bestetik, gaztelania gehiengoaren hizkuntza izanda, umeak gaztelaniaz egiteko hamaika aukera dauzkalako. Beraz, etxeko hizkuntza gaztelania bada, eskaini umeari ahal bezainbeste aukera euskaraz aritzeko (eskola, eskolaz kanpoko jarduerak eta bestelako kultur jarduerak, euskarazko baliabideak...), hizkuntza biak modu orekatuan gara ditzan.



**F1.** *¿Afecta el bilingüismo (plurilingüismo) al rendimiento escolar?* Saber y utilizar dos o más idiomas no afecta en absoluto al rendimiento escolar. Sin duda, expresarse en dos (o más) idiomas le acarrearán ventajas en el futuro: aumentar su ámbito de comunicación, conocer más de una cultura, lograr mejores opciones laborales... Además, las investigaciones pedagógicas realizadas en varios países indican que los niños y niñas que llegan a desarrollar bien dos idiomas y tienen capacidad para estudiar en esos dos idiomas poseen con frecuencia un rendimiento escolar mayor que los y las estudiantes monolingües.

**F2.** *¿Mi hijo o hija estudia solo en eusquera. ¿Tendrá dificultades para aprender castellano en el futuro?* Cuando las niñas y niños aprenden primero el idioma minoritario, les resulta luego muy fácil aprender el idioma mayoritario. Primero, porque lo que se aprende en un idioma puede transferirse a un segundo idioma con facilidad, sin necesidad de reaprenderse, basta con saber cómo se dice. Segundo, porque la lengua mayoritaria rodea al niño o la niña, y le ofrece multitud de experiencias en esa lengua. Si el idioma del hogar es el mayoritario, hay que procurar ofrecer al niño o la niña todas las oportunidades lingüísticas posibles en euskera (escuela, actividades extraescolares y culturales, materiales en euskera...) para que logre desarrollar ambos idiomas de manera equilibrada.



## ÍNDICE

-Introducción  
+Preguntas




- A-Preguntas sobre la familia
- B-Preguntas sobre el desarrollo del lenguaje
- C-Preguntas sobre problemas
- D-Preguntas sobre la lectura y la escritura
- E-Preguntas sobre pedagogía
- F-Preguntas sobre el rendimiento escolar



**B1.** *Bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteak kalterik eharriko dio lehen hizkuntzaren garapenari?* Ezta pentsatu ere! Ildo horretan egindako ikerketa zientifikoei jarraiki, elebitasuna onuragarria da hizkuntzen jabetuntzan eta, gainera, lehen hizkuntzarentzat ere mesedegarria da. Beraz, bigarren (hirugarren) hizkuntzak ez dio lehenengoari kalterik egiten eta, gainera, hainbat abantaila ekarriko dizkio elebidunari, hala nola pentsatzeko eta arazoitzeko molde zabalagoak, gizarte eta kultur abantailak eta, batzuetan, abantaila ekonomikoak ere bai.

**B2.** *Zer hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitena gurekin daudenean?* Ume elebidunak modu egokian hazteko, oso kontuan hartu behar da honako abiaburua: hizkuntza bakoitzaren erabilera mugatzea. Familia-hizkuntza euskara bada, aholkurik onena da seme-alabei euskaraz egitea beti eta, beharrezkoa bada, gurasoek euskaraz ez dakitenei itzultzea. Jarrera horrek argi erakusten du familia-hizkuntza babestu eta garatu nahi dela, eta ez dela ezkututzen, ezta hizkuntza nagusiaren menpean jartzen ere. Bikotekide bakar batek euskaraz badaki, ordea, biderik ohikoena dugu euskaldunak umeari euskaraz egitea eta gaztelaniadunak gaztelaniaz. Gerora, umek bi hizkuntzak garatu ahala, ondo moldatuko dira hizkuntza batean zein bestean.



**B1.** *El aprendizaje de un segundo o tercer idioma, ¿causará problemas en el desarrollo del primero?* La respuesta es NO. Las investigaciones científicas realizadas en ese sentido indican que llegar a ser bilingüe favorece la adquisición del lenguaje y es beneficioso incluso para el primer idioma. En ese sentido, el segundo (tercer) idioma no sólo no interfiere con el primero, sino que proporciona a la persona bilingüe mayores oportunidades de pensamiento y razonamiento, así como ventajas sociales, culturales, e incluso, más adelante, laborales.

**B2.** *¿Qué idioma debemos utilizar con nuestras hijas e hijos en presencia de personas que no hablan eushera?* Un concepto muy a tener en cuenta en la crianza de niños y niñas bilingües es el de delimitar los usos de cada idioma. Si el idioma familiar es el euskera, podéis optar por dirigirlos hacia vuestros hijos o hijas siempre en euskera y, de ser necesario, traducirles a otras personas. Esta postura implica que comprendéis la importancia de proteger y desarrollar el idioma familiar (minoritario), y no lo ocultáis ni supeditáis a la lengua mayoritaria. Si sólo un miembro de la pareja es vasco parlante, la estrategia más frecuente suele ser que cada cual hable consistentemente con el niño o niña en su idioma, puesto que a medida que desarrollen su bilingüismo, podrán recurrir fácilmente al cambio de un idioma a otro.

**B3.** *Zentzuzkoa da seme-alabak hiru hizkuntzatan hezteak?* Hirueletasuna arrunta da munduko bazter askotan, baina esan behar da idatzizkoa baino ahozko hirueletasuna dela gehienetan. Umeak erraz-erraz jabetu ahal dira bi edo hiru hizkuntzaz, betiere hizkuntzon erabilera-aldia nahikoa baldin bada. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da ume guztiek gutxienez hizkuntza bat egoki garatu behar dutela adinaren arabera.

**C1.** *Badauka desabantailarik elebidun izateak?* Ohikoa da neska-mutilen garapenean nola edo halako arazoak sortzea, dela gizarteratzeko, dela nortasuna garatzeko, dela osasun arazoren bat tarteko, eta gurasoak kezkatzea. Alde horretatik, hezkuntza-arazorik agertzekotan, guraso batzuek elebitasunari egotzi ohi diote arazoaren zergatia. Zein da zergatia, ordea, ume elebatar batek arazo hori berori edukiz gero? Ume elebidun batek hezkuntza, gizarteratze edo bestelako arazorik badauka, arazoaren muina zein den antzematen ahalegindu behar da, errua hizkuntzari leporatu barik, eta umeari lagundu egin behar zaio arazoa konpontzen. Ezin da esan elebitasunak ez dakarrela inolako eragozpenik, baina, salbuespenak salbuespen –gerta daiteke umek hizkuntza egoki ez garatzea–, ume elebidunek eduki dezaketzen eragozpenik handiena da ume elebatarrek baino apur bat geroago berba egiten hastea.



**B3.** *¿Es lógico que mis hijas o hijos crezcan hablando tres idiomas?* En diversas partes del mundo, el trilingüismo es algo común y natural, si bien es cierto que en la mayoría de los casos se trata más de un trilingüismo oral que escrito. Los niños y niñas tienen la habilidad de adquirir tres o más idiomas si están en contacto con ellos suficiente tiempo y de modo significativo, aunque hay que tener en cuenta que deberán desarrollar al menos un idioma al nivel apropiado a su edad.

**C1.** *¿Cuáles son las desventajas de que mi hijo o mi hija sea bilingüe?* Generalmente, siempre aparece alguna dificultad y preocupación en el crecimiento físico y social de cualquier niña o niño, así como en el desarrollo de su personalidad y su salud. En ese sentido, si aparece algún problema educativo, los padres y madres de niños y niñas bilingües tienden a achacar la causa del problema al bilingüismo. Pero, ¿cuál es dicha causa si un niño o una niña monolingüe tiene el mismo problema? Si un niño o niña bilingüe tiene problemas educativos, sociales o de otro tipo, el consejo general es el siguiente: hay que tratar de descubrir las posibles causas sin culpar a la utilización de dos lenguas y esforzarse por ayudar al niño o la niña a solucionarlas. No sería cierto decir que el bilingüismo no tiene ningún inconveniente, pero, salvo casos excepcionales en los que no se llega a desarrollar ningún idioma correctamente, la mayor dificultad que puede presentarse es que el niño o la niña comience a expresarse algo después que otro u otra expuesto únicamente a un idioma.


Aita-ama agurgarriak:

Gero eta arruntagoa da gure inguruko umeei euskaraz berbetan entzutea. Izan ere, guraso ugari hizkuntza gorde edo ikasi dute eta seme-alabei ondorengoetarako ahalegina egiten dute. Beste askok, berriz, jatorriz erdaldunak izan arren, euskara ikasi eta garatzeko aukera eman nahi diete seme-alabei, horientzat aberasgarria delakoan.

Umeei hizkuntza bat baino gehiago ikas dezakete erraz-erraz, baina lanabesekin gertatzen den moduan, hizkuntzak ere herdoildu egiten dira erabili ezean. Esku artean duzun liburuak honetan hainbat aholku batu ditugu umeei-gurasoak biktotea eta eleaniztasuna ardatz hartuta, gurasoek egin ohi dituzten galderen erantzun gisa antolatuta.

Liburuak hau Alma Flor Ada eta Colin Baker irakasle entzutetsuen GUÍA PARA PADRES Y PROFESORES DE NIÑOS BILINGÜES liburuaren oinarrituta dago eta zuek eguneroko bizitzan erabiltzeko helarazi dizuegu.

Lagungarri behizue.



**A1.** *Onurarik izango dute seme-alabek elebidumak badira?* Seme-alabek etorkizunean euskaraz nahiz gaztelaniaz berba egin dezaten hezteko garrantzi handiko erabakia da. Umea elebiduna den edo elebakarra den, honelako edo halako ondorioak izango ditu haren izaeran, gizarte-harremanetan, hezkuntzan, lan-aukeretan, bizitzeko lekua aukeratzeko erabakian eta pentsamoldean. Elebidun izateak onura asko eta eragozpen gutxi dakartza. Hurrengo lerroetan, onura horietako batzuk azalduko dizkizuegu.

**A2.** *Ez dakigu euskaraz. Nola lagundu ahal diegu seme-alabei elebidun izaten?* Zalantza barik, aita-amek ez dakizkiten gauzak ikasten lagundu ahal diete seme-alabei. Hizkuntza dela eta, zeuok gaztelaniaz bakarrik jakin arren, seme-alabak euskaraz (ere) eskolatu daitezten nahi baduzue, eman aukera neska-mutilei euskara eskolako esparrutik kanpo erabiltzeko, esate baterako, kultur eta aisialdi ekitaldietan haiekin batera parte hartzen edo ume-jagole euskalduna kontratatzen. Izan ere, oso aberasgarria da umeentzat euskaraz dakiten beste pertsona batzuk ezagutu, haiei entzun eta haiekin hitz egitea.



**A1.** *¿Qué ventajas tendrán mis hijas e hijos si llegan a ser bilingües?* Criar a vuestros hijos e hijas para que en el futuro hablen euskera y castellano es una decisión importante. En nuestra comunidad, el que un niño o una niña sea bilingüe o monolingüe tendrá unos efectos u otros sobre su identidad, circunstancias sociales, educación, posibilidades de empleo, elección del lugar para vivir y modo de pensar. Hay muchas ventajas y pocas desventajas en ser bilingües. En las siguientes páginas os presentaremos algunas de ellas.

**A2.** *No hablamos euskera. ¿Cómo podemos ayudar a nuestros hijos e hijas a ser bilingües?* Las madres y los padres podéis ayudar a vuestros hijos e hijas en el aprendizaje de cosas que vosotros y vosotras no sabéis. Si sólo habláis castellano pero deseáis que vuestras hijas e hijos se escolaricen (también) en euskera, ofrecedles oportunidades para usar el idioma fuera del ámbito escolar, por ejemplo, participando conjuntamente en actividades culturales o de ocio, contratando una persona vascoparlante para que les cuide... ya que es muy enriquecedor que conozcan a otras personas que hablen euskera, escucharles y conversar con ellas.

**E1.** *Zer eskaintzen du bertoko hezkuntza sistemak?* Euskal Hezkuntza Sistemaren ezaugarri nagusiak ondokoak dira: eskolatzea borondatezkoa da 0-6 urteko umeentzat eta derrigorrezkoa 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilentzat, hiru irakasmilatan banatuta: Haur Hezkuntza (HH), 0-6 urtekoentzat, bi ziklotan (0-3 eta 3-6); Lehen Hezkuntza (LH), 6-12 urtekoentzat; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), 12-16 urtekoentzat. Ikasleek gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) ikasteko aukera dute, hiru irakastereduren arabera: D erueda (irakasgai guztiak euskaraz, gaztelania izan ezik), B erueda (irakasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz) eta A erueda (irakasgai guztiak gaztelaniaz, euskara izan ezik). Gainera, ingelesa irakasten da lau urtetik aurrera. Matrikula egiteko epean (otsailean), familiek aukeratzeko dute umeentzako ikastetxea eta irakasteredua.

**E2.** *Zer hartu behar dugu kontuan seme-alabentzako ikastetxea hautatzerakoan?* Eskolan hasten diren umeen hezkuntzan euskara eta gaztelania erabiltzen badira, gurasoek hainbat alderdi hartu behar dituzte kontuan ikastetxea hautatzeko nean, hala nola ikastetxean hizkuntza bakoitza noiz eta nola erabiltzen den, hizkuntza bien arteko oreka zein den, eskolaz kanpoko jarduerak zein hizkuntzatan antolatzen diren edo irakasle eta gurasoen arteko zer-nolako harremanik edo lankidetzarik dagoen, eskolan ikasitakoa etxeko esparrura zabaltzeko.



**E1.** *¿Qué os ofrece el sistema educativo?* Las características principales del Sistema Educativo Vasco son las siguientes: la escolarización es voluntaria para niños y niñas de 0 a 6 años y obligatoria para los de 6 a 16, y se distribuye en tres etapas: Educación Infantil, para escolares de 0 a 6 años, en dos ciclos (0-3 y 3-6); Educación Primaria, para escolares de 6 a 12 años; y Educación Secundaria Obligatoria, para escolares de 12 a 16 años. El alumnado puede recibir la enseñanza en las dos lenguas oficiales (euskera y castellano) de nuestra comunidad, en función de tres modelos educativos: Modelo D (todas las asignaturas en euskera, excepto lengua española), Modelo B (algunas asignaturas en euskera y otras en castellano) y Modelo A (todas las asignaturas en castellano, excepto euskera). Además, se imparte inglés a partir de cuatro años. Las familias eligen el centro escolar y el modelo de enseñanza en el periodo habitual de matriculación (febrero).

**E2.** *¿Qué debemos tener en cuenta al elegir un centro escolar para nuestros hijos e hijas?* Si se usan tanto el euskera como el castellano en la enseñanza de niños y niñas que comienzan la etapa escolar, es conveniente que toméis en cuenta algunas consideraciones, tales como cuándo y cómo se usan cada uno de los idiomas en la enseñanza, cuál es el equilibrio entre ambos idiomas, en qué idioma(s) se organizan las actividades extraescolares o el tipo de colaboración existente entre los docentes y los padres y madres para extender la educación al hogar.




**C2** *Gure alabak euskara eta gaztelania nahasten ditu. Zer egin dezaket?*

Euskara eta gaztelania nahastea arrunta da hizkuntzen garapenaren hastapenetan. Ume gehienek euskara eta gaztelania nahasten dituzte hainbat egoeratan eta hainbat lagunekin, baina, oro har, nahastea desagertu ohi da hizkuntza biak garatzen diren neurrian. Auzi horretan, familiak nabarmen lagundu ahal die umeei hizkuntzak banantzen, hizkuntza bakoitzaren erabilera-eremuak zedarritu edo bereizteko ahaleginak eginez. Dena dela, oso garrantzitsua da umeari errieta ez egitea erratzen den bakoitzean eta haren komunikazio-ahaleginak hutsegitetzat hartzea, horrek ondorio txarrak ekar ditzakeelako.

**C3** *Gure semeak arazoak dauzka ikasketetan.*

*Euskaraz ikasteagatik ote?* Batzuetan, ume elebidunek zailtasunak dituzte ikasketetan. Hainbat arazoik sor ditzakete zailtasunak, baina, oro har, bat ere ez da elebitasunaren erruz. Arrazoia hizkuntza baten edo bien garapen urria bada, ahalegindu garapenaren eskasiaren zergatiak aurkitzen eta bidea eman umeari bi hizkuntzak garatzeko. Horretarako, jakina, kontuan hartu umeak zein esparrutan, zein egoeratan eta norekin erabiltzen duen euskara edo gaztelania.



**C2** *Nuestra hija mezcla el euskera y el castellano.*

*¿Qué debo hacer?* Mezclar los dos idiomas es normal en los primeros momentos del desarrollo bilingüe. Hay distintos momentos y distintas maneras de mezclar los idiomas pero, en general, este fenómeno desaparece a medida que se desarrollan ambos idiomas. La familia puede ayudar de manera notable en ese proceso de separación, esforzándose por delimitar los usos de cada idioma. En cualquier caso, lo más importante es no criticarles en ningún caso y no hacerles ver como errores sus esfuerzos de comunicación, ya que ello puede tener un efecto negativo.

**C3** *Nuestro hijo está teniendo dificultades con el aprendizaje. ¿Es a causa del bilingüismo?*

En ocasiones, algunos niños y niñas bilingües tienen dificultades de aprendizaje, originadas por diversas causas, pero, en general, ninguna de ellas depende del bilingüismo. Si la causa reside en el desarrollo insuficiente de alguno de los idiomas o de los dos, esfuerzate por descubrir las causas que han propiciado esa falta de desarrollo y ayuda a crear un ambiente donde pueda desarrollar ambos idiomas, tomando en consideración los distintos contextos, personas y ocasiones en los que se utilizan los dos idiomas.

**A7** *Etorri berriak gara. Euskaraz ikasi behar dute seme-alabek? Eta familiako gainerako kideek?*

Orokorrean, familia bat herrialde batetik beste batera joaten denean, familia horrentzako kezka izan ohi da familiako txikienek harrera herrialdeko hizkuntza ahalik eta azkarren ikastea. Gu bizi garen inguruari dagokionez, gure erkidegoak bi hizkuntza ofizial dauzkala kontuan hartuta, umeek euskaraz eta/edo gaztelaniaz ikasiko dute ingurune soziolinguistikoa zein den. Umeak eskolara badoaz, euskaraz edo gaztelaniaz edo biez jabetuko dira eskolan, etxean eta inguruan erabiltzen d(ir)en hizkuntz(ar)en arabera. Bigarren galderari erantzuteko, familiaren lehentasunei begiratu behar zaie. Litekeena da hizkuntza bat ikastea (batik bat, euskara eremu erdaldunetan) lehentasun handikoa ez izatea familiarentzat eta, hartara, hasiera batean bazter uztea. Nolanahi ere den, kontuan hartu behar da hizkuntzak ikastea jarduera atsegina izan behar dela umeentzat, familiaren ongizaterako onuragarri eta neska-mutikoen beharrianak betetzera bideratua.



**A7** *Acabamos de inmigrar. ¿Deben aprender euskera nuestros hijos e hijas? ¿Y el resto de la familia?*

En general, cuando una familia se muda de un país a otro, suele querer que los más pequeños adquieran fluidez lo antes posible en el idioma del país de acogida. En nuestro caso, considerando que nuestra comunidad cuenta con dos lenguas oficiales, la adquisición del euskera y/o del castellano dependerá en gran medida del entorno sociolingüístico en el que vivan los niños y las niñas. Si son mayores, el idioma o idiomas que desarrollen dependerá del idioma de la escuela, la lengua que se practique en el hogar y del entorno. La respuesta a la segunda pregunta dependerá de las prioridades de la familia. Puede ser que el aprendizaje de una lengua (en particular del euskera) no sea la mayor prioridad para la familia y se relegue a un segundo plano. En cualquier caso, el aprendizaje de una lengua debe ser una experiencia agradable, no traumática, enfocada hacia el bienestar de la familia y a cubrir las necesidades de los niños y niñas.

# AMAIERA FIN



*Parte-hartzaileak...*  
*Los protagonistas...*



*... eta ZEU!*  
*... y TU!*

*Estimados padres y madres:*

*En nuestro entorno, es cada vez más frecuente oír a niños y niñas hablando en euskera. De hecho, una gran cantidad de madres y padres desean conservar su primera lengua y transmitírsela a sus hijas e hijos, y otros muchos, aún no siendo vasco parlantes, entienden que saber euskera es beneficioso para los pequeños y les brindan la oportunidad de aprender y desarrollar esa lengua.*

*A corta edad, las niñas y niños pueden asimilar fácilmente dos o más idiomas, pero al igual que sucede con una herramienta, la lengua se oxida si no se utiliza. Este folleto que ahora está en tus manos recoge una serie de consejos que tienen en cuenta las relaciones familiares y el plurilingüismo, organizado en forma de respuestas a preguntas frecuentes.*

*El cuadernillo está basado en el libro Guía para Padres y Profesores de Niños Bilingües, de los prestigiosos profesores Alma Flor Ada y Colin Baker, expertos en bilingüismo.*

*Esperamos que os resulte de utilidad.*

**A5.** *Neuk ere ihas dezaket euskara seme-alabekin batera?* Bikotekidea seme-alabekin beste hizkuntza bat erabiltzen entzunda hasten dira aita-ama asko eta asko hizkuntza hori ikasten. Gure artean, adibiderik ohikoena dugu umea jaiotzeaz batera ama edo aita euskara eskolak hartzen hastea, familiako hizkuntza euskara izan dadin. Era horretako erabakia are garrantzitsuagoa da gutxiengoaren hizkuntzaz ari garenean, umeek geroan eraz-eraz ikasiko baitute gehiengoaren hizkuntza, hau da, gaztelania.



**A6.** *Kampoko ume bat daukagu. Zer egin hizkuntzen ikaskuntzari dagokionez?*

Ume bat adoptatzen denean, elebitasunari buruzko erabakiak umearen adinaren eta familia-hizkuntzaren arabera izan behar dira. Esate baterako, bi urteko beharoko umea ekarri eta bikotekide bakar batek badaki euskaraz, zuotako bakoitzak hizkuntza batean berba egin ahal dio umeari. Biok euskaraz badakizue, onena da biok euskaraz egitea, euskara familia-hizkuntzatzat aukeratu eta umeak ondo garatzeko (eremu urriko hizkuntza bat dela kontuan hartuta), gerora ez baitu arazorik izango gaztelania etxetik kanpo ikasteko. Umea handiagoa denean (demagun sei edo zazpi urtekoa), berebiziko garrantzia dauka umearen lehen hizkuntza eta adoptatu arteko kultura aintzat hartzeak, beraren estimuari eusteko. Handik aurrera, gurasoak umearen beharrianak betetzen ahalegindu beharko lirateke, ez eurenak.




**A5.** *¿Puedo aprender otro idioma al mismo tiempo que mis hijos e hijas?* Hay muchos ejemplos de madres y padres que han aprendido un idioma de su pareja, oyéndose hablar a los hijos e hijas. El ejemplo más común es el del padre o la madre que asiste a clases de euskera justamente al tiempo del nacimiento del niño o la niña, estableciendo como meta la uniformidad lingüística dentro del hogar. Esta decisión es, si cabe, más importante cuando se trata de una lengua minoritaria, puesto que más adelante las niñas y los niños adquirirán la lengua mayoritaria con facilidad.

**A6.** *¿Qué estrategia debemos tomar respecto a un niño o niña adoptada?* Las decisiones frente al bilingüismo dependerán de la edad a la hora de la adopción y del idioma o idiomas que hable la familia. Cuando se trata de menores de dos años, y sólo un miembro de la pareja habla euskera, podéis hablarle cada uno en un idioma. Si ambos habláis euskera podéis hablarle sólo en euskera para que lo desarrolle bien (puesto que se trata de un idioma minoritario), ya que en cualquier caso no tendrá mayores problemas para desarrollar el castellano (idioma mayoritario) fuera del hogar. Cuando el niño o niña adoptada es algo mayor (pongamos de seis o siete años), es muy importante valorar su primer idioma y su cultura hasta el momento de la adopción, puesto que su concepto de autoestima aumentará. A partir de ahí, el consejo más apropiado es el de intentar cubrir sus necesidades, no las del padre o la madre, y ofrecerle oportunidades para que desarrolle bien tanto el euskera como el castellano.

**C4.** *Ez dut euskaraz ondo hitz egiten. Euskaraz egin behar diet seme-alabei?* Galdera horri erantzutea ez da lan erraza. Heine handi batean, erantzuna zure hizkuntza-gaitasunaren arabera da. Hala eta guztiz ere, hizkuntza-eredu txarra izan baino, hobe da umeari euskaraz ez egitea, esakune arrunt eta jakin batzuk izan ezean. Erabili zure lehen hizkuntza umearekin. Eta euskaraz hitz egin nahi badiozu, batez ere, ume-umea denean, zergatik ez duzu izena ematen euskaltegiren batean?

**D1.** *Bigarren hizkuntzan irakurtzen ikasteak kalte egin diezaiolke lehen hizkuntzan irakurtzeari?* Ez horixe! Hizkuntza batean irakurtzen ikasteak bidea errazten du beste hizkuntza batean irakurtzen ikasteko. Hala ere, bi hizkuntzatan ikasten denean berba batzuk nahasten diren moduan, irakurtzen ere nahasteren bat gerta daiteke, batik bat, alde handiak badaude hizkuntzen ahoskeren artean. Alabaina, umeak hazi eta hizkuntzak garatzen dituzten neurrian bazter uzten dute nahasketa.



**C4.** *No hablo muy bien euskera. ¿Debo hablarlo con mis hijos e hijas?* La respuesta a esta pregunta no es sencilla. Depende en gran medida de tu capacitación lingüística. De todas formas, si vas a ser un mal modelo lingüístico, no es conveniente que les hables euskera, a excepción de locuciones o expresiones de uso común. Es mejor hablarles en tu primera lengua. Y si realmente quieres hablarles en euskera de modo aceptable, sobre todo a temprana edad, ¿por qué no tratas de asistir a clases de euskera?

**D1.** *¿Aprender a leer en un segundo idioma interfiere con la lectura en el primer idioma?* Todo lo contrario. Aprender a leer en un idioma es preparar el terreno para aprender a leer en otro. Sin embargo, así como al aprender a hablar dos idiomas a veces se mezclan algunas palabras, algo similar puede suceder con la lectura, sobre todo si la pronunciación en los dos idiomas es bastante diferente. Pero tal y como sucede al aprender a hablar, a medida que crecen se van alejando de la mezcla y llegan a separar bien los dos idiomas.



**D2** *Nola lagundu alabari edo semeari euskaraz irakurtzen eta idazten?* Hasteko eta bat, gurasoek oso argi eduki behar dute irakurketa eta idazketa jarduerak atseginak izan behar direla umeentzat. Hau da, irakurketa nahiz idazketa saioak erakargarriak izan behar dira umeentzat, eta ingurua ulertzeko bidea eman behar diete. Umezaroan, irudimena lantzeko liburu bizi, erakargarri eta barre-eragileak behar dira. Bultzatu seme-alabak euskaraz irakurtzera eta idaztera, beñiere helburu bati zein mezu bati lotuta eta, batez ere, ez azpimarratu etengabe umearen ortografia edo gramatika akatsak.


**D3** *Nom lortu seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?* Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gaztetxoentzat, oro har, adinaren arabera sailkatuta. Dena den, euskarazko liburuak aurkitzeko erraztasuna kontuan hartuta ere, aukera bikaina da herri liburutegiak erabiltzea. Herri liburutegia doako zerbitzua da eta guztiz baliagarria, erabiltzen baldin bada, behintzat. Zure herriko liburutegiak euskarazko baliabide askorik ez badauka, ez etsi hasierako momentutik eta eskatu euskarazko liburuak, eta bien bitartean, erabili beste aukera batzuk umei euskarazko baliabideak eskaintzeko (esaterako, liburu eta bideo trukea beste guraso batzuekin). Horrez gain, jakizu Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzu askok urtero-urtero argitaratzen dutela Euskarazko Produktuen Katalogoa, Gabonen inguruan. Bertan, informazio baliagarria aurkituko duzu euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz ([www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)).

**D2** *¿Cómo puedo ayudar a mi hija o hijo a aprender a leer y escribir en eushera?* Ante todo, los padres deben tener muy presente que la lectura y la escritura deben ser experiencias agradables. Es decir, deben ser interesantes para el niño o niña, estar relacionadas con su mundo de experiencias y deben darles oportunidades de comprender mejor su propio mundo. En la niñez se necesitan libros imaginativos, vivos e interesantes, que hagan reír a las niñas y niños y estimulen su imaginación. Anima a tus hijos e hijas para que lean y escriban en euskera buscando un propósito y un mensaje y, sobre todo, no les señales constantemente sus errores gramaticales.

**D3** *¿Dónde puedo obtener información sobre lugares para conseguir libros y otros materiales en eushera para mis hijos o hijas?* En el mercado se pueden encontrar numerosas publicaciones en euskera para el público infantil, generalmente clasificadas en función de la edad. De todos modos, aún considerando la facilidad para obtener libros escritos en euskera, es importante hacer uso de las bibliotecas públicas. Éstas constituyen un valioso servicio gratuito, pero solo tendrán utilidad si verdaderamente las usamos. Si la biblioteca de tu municipio no cuenta con muchos volúmenes en euskera, no hay que desesperarse, los puedes solicitar, además de buscar otros métodos para proporcionar materiales a los niños y niñas (intercambio de libros y videos con otros padres y madres...). Además, los servicios de euskera de un buen número de ayuntamientos de Bizkaia publican anualmente (en fechas cercanas a las Navidades) un catálogo de productos en euskera en el que podrás encontrar información sobre libros, discos y otros materiales, atendiendo especialmente a las novedades del año en curso ([www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)).

**A3** *Guraso bakarrek familietan, zer egin dezake aitah edo amah bakarrik semea edo alaba elebidun izaten laguntzeko?* Oro har, guraso bakarrek familiak nahiko trebeak dira zailtasunei aurre egiten. Hizkuntza kontuetan, aintzat hartu behar dugu hizkuntza ez dela familiarengandik bakarrik jasotzen. Hala, umeak jaso dezake, batetik, amaren edo aitaren hizkuntza eta, bestetik, eskolako hizkuntza edo ingurukoa. Beraz, etxean erabiltzen den hizkuntza gorabehera, liburuxka honetan guraso biko familientzat emandako aholkuak guraso bakarrek familientzat ere baliagarriak dira.

**A4** *Zein hizkuntzatan ikus-entzun behar du umeak telebista?* Hizkuntza jakin bat erabiltzeko aukera gutxi dagoenean, bideoak eta telebistako saioak lagungarriak izan daitezke hizkuntza lantzeko. Euskarazko bideoek, esate baterako, lexikoa lantzeko balio dezakete, baina esan behar da telebistak ez duela askorik laguntzen hizkuntzaren garapenean. Izan ere, telebista hizkuntza ikasteko baliabide pasiboa da, eta beraz, umeak hizkuntzaren hartzaila hutsak dira.



**A3** *En una familia monoparental, ¿Qué puede hacer una madre o padre para ayudar a que su hijo o hija sea bilingüe?* Generalmente, las familias monoparentales, dada su situación, desarrollan grandes habilidades para afrontar las dificultades. De cualquier modo, hay que tener en cuenta que el bilingüismo no se adquiere sólo de la familia, y en el caso concreto que nos ocupa, puede combinarse el idioma que habla el padre o madre con el niño o niña, con el idioma de la comunidad o de la escuela. Así, independientemente de cuál sea el idioma empleado en el hogar, los consejos expresados en estas páginas son, en general, válidos también para las familias monoparentales.

**A4** *¿En qué idioma debe escuchar mi hijo o mi hija la televisión?* Cuando no hay suficiente exposición a un idioma, el uso de videos y programas televisivos puede ser un suplemento útil a la dieta lingüística de niñas y niños. Los videos en euskera pueden contribuir a aumentar su vocabulario. De todas formas, hay que apuntar que la televisión no contribuye demasiado al desarrollo lingüístico, puesto que constituye un medio pasivo y, en consecuencia, se convierten en meros receptores del lenguaje, no en productores.

## AURKIBIDEA

-Sarrera  
+Galderak

- A-Familiari buruzko galderak
- B-Hizkuntzaren garapenari buruzko galderak
- C-Arazoei buruzko galderak
- D-Irakturketa eta idazketari buruzko galderak
- E-Pedagogiari buruzko galderak
- F-Eskola-errendimenduari buruzko galderak



**F3** Ez dakit euskaraz. Nola lagundu ahal diet seme-alabei eskolako lanak egiten? Galdera hau ohikoa da eskolan erabiltzen den hizkuntzan ez dakiten aita-amen artean. Erantzuna ez da erraza, hainbat alderdi kontuan hartu behar direlako, hala nola umearen adina, hizkuntza bakoitzean daukan gaitasun erlatiboa, amen eta/edo aiten hizkuntza-gaitasuna euskaraz... Oro har, bi talde egin ditzakegu:

- Euskaraz ez dakiten eta euskara ulertzen ez duten gurasoak. Halakoetan, aitak eta/edo amak umeari eskatu ahal diote eskolako lanak itzultzeko eta apurka-apurka haiekin batera ikasi.
- Euskaraz ondo jakin ez arren, zerbait ulertzen duten gurasoak. Halakoetan, irtenbiderik onena da euskaraz entzutea seme-alabei eskolako lanak egiten dituztenean, eta behar izanez gero, gaztelaniaz lagundu, betiere umearekin batera ikasteko ahaleginak eginez eta ahalegintzen zaretela erakusten.



**F3** ¿Cómo puedo ayudarles en las tareas escolares si desconozco el euskera? Esta pregunta suele ser muy habitual en padres y madres que desconocen el idioma utilizado en la escuela. La respuesta no es fácil, ya que para responderla hay que tener en cuenta diversos factores, como por ejemplo, la edad del niño o la niña, la capacidad de desenvolverse en cada uno de los idiomas, la capacidad lingüística de la madre o del padre...

En general, podemos definir dos casos:

- Padres y madres que no saben ni entienden euskera. En este caso, el padre y/o la madre podéis animarles a que os traduzcan los deberes, y esforzaros por ir aprendiendo poco a poco conjuntamente.
- Padres y madres que no saben expresarse bien en euskera, pero que lo entienden. En este caso, la mejor opción es que escuchéis a vuestros hijos e hijas en euskera al hacer los deberes, y les ayudéis en castellano, aunque intentando siempre aprender con el niño o la niña y demostrándoles que vosotros también os esforzáis.